



## DK202414 DEKRETUA – UR-MIA SOLAS ELKARTEARI DIRULAGUNTZA ONARTZEA

Gaurko datarekin Auzo alkateak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Ereñotzun, 2024ko apirilaren 18an

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak hitzarmen bat du Ur-mia Solas Elkartearekin, non bigarrenak 1.050€ jasotzen dituen urtean zehar aktibitate desberdinak egiteko. Hauetatik 550€ kultura jardueretarako erabiltzen dira eta 500€ elkartearen Bola eta Toka atalaren jardueretarako.

2024ko Ereñotzuko Toki Entitate Txikiko aurrekontuetan Ur-mia Solas Elkartearen aldeko diru-laguntza izenduna jasotzen da.

Diru-laguntzen 2023-2025 Plan Estrategikoan jasota dago.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorrak 16. artikuluan lankidetzaren hitzarmenak formalizatzeko irizpideak ezartzen ditu.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

**Lehenengoa.-** Ereñotzuko Toki Entitate Txikia eta Ur-Mia Solas Elkartearen arteko lankidetzaren hitzarmena onartzea.

**Bigarrena.-** 1.050 euroko diru-laguntza onartzea, hitzarmenaren laugarren klausulan xedatutakoa betez, partida honen kargura: 01.481.01.334.00 Dirulaguntza zuzenak 2024. AD-94.

**Hirugarrena.-** Ordainketa, hitzarmenaren bostgarren klausulan jasota bezala egitea: diru-laguntzaren %60 (630€) aurreratuko da erabaki honekin batera, eta gainontzeko %40 (420€) justifikazioa aurkeztean.

Olatz Juantorena Aizpurua auzo alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Hernaniko Udalaren idazkaria naizen honek ziurtatu dut.

Auzo alkatea

Fede ematen dut:

Udal-idazkaria